HEZKUNTZA PLASTIKOA /EDUCACIÓN PLÁSTICA

Naroa EGURROLA SOLANO

# DESARROLLO DEL PENSAMIENTO DIVERGENTE A TRAVÉS DE LA EDUCACIÓN ARTÍSTICA/ *PENTSAMENDU DIBERGENTEAREN GARAPENA HEZKUNTZA ARTISTIKOAREN BITARTEZ*

TFG/*GBL* 2014

upna
Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Grado en Maestro de Educación Primaria
/
*Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua*

**Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua**

**Grado en Maestro en Educación Primaria**

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

# PENTSAMENDU DIBERGENTEAREN GARAPENA HEZKUNTZA ARTISTIKOAREN BITARTEZ / *DESARROLLO DEL PENSAMIENTO DIVERGENTEA A TRAVÉS DE LA EDUCACIÓN ARTÍSTICA*

Naroa EGURROLA SOLANO

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA**
**UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**

**Ikaslea / Estudiante**

Naroa EGURROLA SOLANO

**Izenburua / Título**
Pentsamendu dibergentearen garapena hezkuntza artistikoaren bitartez/ Desarrollo del pensamiento divergente a través de la educación artística

**Gradu / Grado**
Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

**Ikastegia / Centro**
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

**Zuzendaria/ Director-a**
Nerea DE DIEGO MURILLO

**Saila / Departamento**
Psikologia eta pedagogia saila / Departamento de psicología y pedagogía.

**Ikasturte akademikoa / Curso académico**
2013/2014

**Seihilekoa / Semestre**
Udaberrikoa / Primavera

## Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute […] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Lehen Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Lehen Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Lehen Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagokikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta dizplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktiketan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituena. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Lehen Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluak Lehen Hezkuntzako haurren beharrak, interesak, eta gaitasunak ezagutzeko bidea eman didate, baita lehen hezkuntza etaparen antolaketa eta funtzionamendua ezagutzeko aukera izan dut. Honetaz gain, ikas irakaskuntza prozesuan parte hartzen duten hainbat faktore ezagutzeko eta hauek kontuan hartzeko gaitasuna bereganatu dut, hau da, hezitzaileok umeen garapena integrala bermatzeko izan behar dugun jarrera, rola eta ikuspuntu kritikoa garatzen lagundu didate.

Didaktika eta diziplinako moduluetan zehar ikasi dudana batez ere lagundu dit errealitatea hainbat ikuspuntutik begiratzeko gaitasuna bereganatzean, eta beraz kritikoagoa izateko. Horretaz gain, modulu honetako irakasgaiak oso baliogarriak izan dira nire burua hobeto ezagutzeko eta zer nolako hezkuntza mota lortzea gustatuko litzaidakeen inguruan hausnartzeko. Beraz, esan nahiko nuke hauek ezinbestekoak izan direla nire gradu bukaerako lanaren gaia zehazterako orduan.

Halaber, Practicum moduluak laguntza eman du lau urteetan zehar ikasitakoa praktikara eramateko eta benetako errealitateari eta suertatzen ziren egoerei aurre egiteko. Horretaz gain, bidea eman du marko teorikoarekin batera, proiektu bat aurrera eramateko eta nire hipotesiak eta helburuak betetzen diren ala ez ikusi ahal izateko, beraz Practicum moduluari esker posible izan dut nire analisia aurrera eramatea.

Azkenik,  aipatzekoa da “Praktikak V” eta honi dagozkion irakasgaiak ezinbestekoak izan direla irakasle espezialista bezala egoteko eta PTaren ikuspuntua ezagutzeko. Honi esker konturatu nintzen zer nolako berariazko beharrak eta interesak zituzten ikasleak, eta hauek asetzeko eta haiengan ikaskuntza ezaguratsuagoa lortzeko, nire gradu bukaerako lanean pentsamendu dibergentearen inguruan ikertzea erabaki nuen.

Beste alde batetik, ECI/3857/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira “INTRODUCCIÓN: Antecedentes, objetivos y cuestiones” eta “CONCLUSIONES” atalak (idatzi lanaren tituluak), baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

## Laburpena

Lan honen bitartez baieztatu nahi da zer nolako eraginkortasun esangutsua izan dezakeen lehen hezkuntzako haurrengan pentsamendu dibergentea edo horizontala garatzea. Normalean pentsamendu mota honi ez zaio arretarik jartzen ikas irakaskuntza prozesuan, aldiz, garrantzia handiko pentsamendu mota da, honi esker gure ikuspuntua zabaltzen ikasten dugulako, egoera baten aurrean erantzun anitzak izaten ahalbidetzen digulako, erabakiak hartu beharreko orduan beldurra ez izateari laguntzen digulako eta abar. Azken finean, pentsamendu mota honi esker tresna bereziak beregaratzen ditugu, haurtzaroan zein helduaroan lagunduko gaituztenak egunerokotasunean suertatzen diren arazoen aurrean aukera anitzak ikusi ahal izateko eta frustraziorik gabe egoerei aurre egin ahal izateko.

Honetaz gain, Atarrabiako Atargi Ikastetxe publikoan, 3.mailako bi geletan plastikako saioetan lan proiektu bat aurrera eraman zen, pentsamendu dibergentea landuz lortu ditzakegun ondorio positiboak egiaztatzeko.


*Hitz gakoak*: Arte hezkuntza, pentsamendu dibergentea, kognizioa, hezkuntza eta lan proiektuak


## Abstract

The following paper tries to prove the significant efficiency that might have the development of the horizontal or divergent thinking in primary school children, which hardly ever is given enough attention in the learning-teaching process. This divergent thinking has a really great importance due to the help that provides to us to widen our point of view, to have different answers towards different situations, not to be afraid of making decisions, etc. Thanks to this kind of thinking, we develop skills that in the childhood as well as in the adulthood might be helpful to cope with our day to day in a better way and dealing with our daily problems with less frustration.

To evidence the benefits we may achieve improving the divergent thinking it was carried out a project based learning into the plastics subject for the third year of primary education in Atargi, a school in Villava.

*Keywords*: Art education, divergent thinking, cognition, education and project based learning

## Resumen

El siguiente trabajo trata de comprobar la eficiencia significativa que puede llegar a tener el desarrollo del pensamiento horizontal o divergente en los niños y niñas de educación primaría. Este pensamiento, siendo de vital importancia pues nos ayuda a ampliar nuestro punto de vista, a tener diferentes respuestas ante una circunstancia, a no tener miedo a tomar decisiones, etc. Apenas tiene una presencia significativa en el proceso de enseñanza aprendizaje. En definitiva, gracias a este tipo de pensamiento, desarrollamos herramientas que tanto en la infancia como en la edad adulta nos ayudan a poder hacer frente, con menos frustraciones y teniendo en cuenta más opciones y puntos de vista, a los problemas cotidianos.

Para evidenciar los beneficios que podemos obtener trabajando el pensamiento divergente se desarrolló un proyecto de trabajo en la asignatura de plástica, en dos aulas de 3.de primaría de Atargi, colegio público de Villava.

*Palabras clave*: Educación artística, pensamiento divergente, cognición, educación y proyectos de trabajo.

## Aurkibidea

**Introducción** **1**
Antecedentes 1
Objetivos 2
Cuestiones 3
**1. Marko teorikoa** **5**
1.1. Arterako bidea 5
1.2. Artea eta kognizioa 8
1.2.1. Arteak norbanakoan duen eragin positiboa 10
1.2.2. Artearen bitartez bizitza kontzienteago bihurtu dezakegu 14
1.3. Kognizioa eta emozioa 15
1.4. Hezkuntza, pentsamendu motak eta artea 17
1.5. Pentsamendu dibergentea oinarritzat hartuta lortu daitekeen hezkuntza mota 18
1.5.1. Testuinguru sortzailea eraikitzearen garrantzia 22
1.5.2. Lan proiektuetan oinarrituz 23
**2. Materialak eta metodoak** **28**
2.1. Ekintza praktikoa LHko 3.mailako gela batean 28
2.1.1. Testuingurua 28
2.1.2. Helburu orokorrak 28
2.1.3. Metodologia 29
2.1.4. Saioak 30
1.saioa 31
2.saioa 38
3.saioa 40
4.saioa 49
5.saioa 53
**3. Ekintza praktikoaren emaitzak** **59**
3.1. Jardueren proposamena 61
**Conclusiones** **72**
**Erreferentziak** **76**
**Eranskinak** **77**
**1.Saioa** **77**
**4.Saioa** **85**

# INTRODUCCIÓN.

## Antecedentes

Cuando miro atrás, me doy cuenta de que el arte siempre ha formado parte de mi vida. Pero al ser algo vivencial y no racional, no me he percatado de la importancia que ha tenido en el desarrollo de mi persona hasta que no he realizado una reflexión profunda sobre los beneficios que ha tenido en mi. Al darme cuenta de esto, he llegado a la conclusión de que las artes que he ido conociendo y he experimentado, nunca han sido suficientes y siempre he estado buscando más. Eso se puede deber a que siempre me ha llamado la atención el poder que tiene el arte de hacernos sentir mejor y más conscientes de la vida, pues a través de éste podemos conocer mejor la verdadera realidad que cada uno/a nos construimos y en la que creemos vivir.

El arte nos ayuda a comprender el paisaje social y cultural en el que habita cada persona. La vida es tan compleja que sólo mediante las metáforas que ofrece el arte se puede llegar a hacer consciente lo inconsciente de la vida cotidiana. Es tan valioso lo que nos evoca, que cada vez que lo experimentamos nos ayuda a darnos cuenta de que estamos vivo/as, e incluso podemos llegar a sentirlo como un acontecimiento único en la vida.

En cuanto al papel que desempeña en la educación, diría que el arte nos hace sentir la emoción que tanto se echa de menos en cada acción educativa. Pero no solamente eso, sino que las artes plásticas contribuyen al pleno desarrollo de la persona, tanto individual como socialmente. En el aspecto individual de la persona, el arte ayuda en el desarrollo de la inteligencia; también en la capacidad de expresión y comunicación; como también en el desarrollo de la personalidad, de la emoción y del sentimiento. Y cómo no, a través del arte desarrollamos la percepción y la sensibilidad, lo que da pie a la construcción de la creatividad en el pensamiento, algo fundamental de adquirir para poder desenvolvernos en la vida.

Como he mencionado, la vida es muy compleja y mediante las experiencias que nos van ocurriendo vamos aprendiendo a prever lo que nos puede suceder y, poco a poco,

improvisar caminos alternativos al pensado. Lo que ocurre es que normalmente durante los años de escolarización y educación obligatoria nos enseñan que solamente hay una salida en el camino que vamos a recorrer y tal es así, que cuando nos confundimos en el laberinto de la vida no sabemos buscar otro camino alternativo para seguir andando. El estilo de vida que mantenemos tiende a generarnos frustraciones y malestares en aquellas situaciones en las que no sabemos qué hacer cuando se termina el camino predeterminado. Por este motivo me parece de gran interés conocer de qué manera nos puede ayudar el arte en el desarrollo de otro tipo de pensamiento que nos aporte beneficios en el estilo de vida que podemos llevar.

Por todo lo explicado anteriormente, mediante este trabajo voy a tratar sobre pensamientos alternativos que podemos desarrollar, desde la infancia, a través del arte y que puedan trasladarse a la vida cotidiana para tener herramientas a la hora de enfrentarnos con autonomía y decisión a las incertidumbres de la vida.

**Objetivos**

Una vez presentado el tema a tratar, a continuación expongo los objetivos que se quieren conseguir a través de él:

- Identificar los beneficios que ofrece el arte en el desarrollo integral del individuo.
- Saber cómo nos puede ayudar el arte en la construcción del conocimiento.
- Conocer modos de pensamiento diferentes.
- Concretar estrategias para el desarrollo del pensamiento lateral.
- Aprender cómo podemos ayudar a desarrollar otro tipo de pensamiento a través del arte.
- Conocer los efectos positivos que este tipo de pensamiento lateral nos ofrece para desenvolvernos en la vida.

En general, se trata de exponer los beneficios que se pueden conseguir tanto personalmente como académicamente gracias a la educación que podemos realizar a través del arte y así aclarar que no sólo el arte debe formar parte de la enseñanza educativa sino que sería muy interesante que la educación se condujera a través del arte.

**Cuestiones**

Una vez concretados los objetivos, las cuestiones a las que me gustaría hacer frente serian las siguientes:

- ¿Qué beneficios ofrece al arte en el desarrollo integral de la persona?
- ¿Cómo nos puede ayudar el arte en la construcción del conocimiento?
- ¿Qué tipo de pensamientos alternativos existen?
- ¿Cómo podemos ayudar a desarrollar este tipo de pensamiento a través del arte?
- ¿Cómo afecta el conocimiento de otro tipo de pensamiento en la vida cotidiana?

Para resolver estas cuestiones voy a realizar una aproximación tanto desde la teoría, como desde la experiencia práctica que me ayudará a encontrar resultados en la práctica educativa.

La experiencia práctica consiste en cinco sesiones en la asignatura de plástica de la escuela pública Atargi de Villava, donde intento desarrollar en los/as alumno/as un pensamiento alternativo al que normalmente utilizan en las clases convencionales.

Aprovechando un trabajo manual que hicieron con la base de botellas de plástico, las cuales utilizaron para convertirlas en flores, se me ocurrió hacer un pequeño proyecto en torno a las flores, para que pudieran desarrollar la idea de la flor, ya que en un principio todo/as lo/as alumno/as hicieron la misma figura de una flor.

Para ello, durante estas 5 sesiones, llevamos a cabo diferentes actividades que buscaban ampliar la idea y el concepto de la “flor”.

Con este pequeño proyecto lo que finalmente se quería buscar era contrastar lo que nos dice la teoría con lo que podemos ver en la práctica educativa siempre teniendo en cuenta los recursos a los que he podido optar y el tiempo que he podido tener. Y también, como es lógico, buscaba el desarrollo del pensamiento horizontal para hacer ver que no sólo hay una respuesta ante una circunstancia o un concepto, sino que hay diferentes soluciones y que todas pueden ser válidas.

# 1. MARKO TEORIKOA.

## 1.1. Arterako bidea

1950. hamarkadan konduktismoa izan zen hezkuntza dominatzen zuen korronte psikologikoa, eta honek hezkuntzan izan zuen eragina oraindik ere gure hezkuntza praktiketan irauten du. Hull eta Skinner izan ziren teoria honen defendatzaile sutsuenak. Hauen arabera, ikaskuntza estimulo zehatz baten aurrean ematen zen erantzun konkretu baten ikaskuntza baldintzatuaren ondorio zen, beraz, soilik baldintzapenera mugatzen zuten garunean ematen diren hainbat prozesu mentalak aintzat hartu gabe. Aldiz, Bruner edo Greenfield[1] bezalako ikerlariak ohartu ziren ikaskuntzaren prozesua kausa-ondorioa baino konplexuagoa zela, izan ere konturatu ziren aurre ezagutzak ere asko baldintzatu zezakeela ikaskuntza berri baten barneraketan, baita aurretik nola edo zer modutan ikasi ditugun beste eduki batzuk ere. Hau da, ondorioztatu zuten subjektibismoa eta pertsona bakoitzaren egoera, aurre ezagutzak, intentzioak, beharrak, interesak…asko baldintzatzen zutela ikaskuntzan eta beraz pertzepzioa ez dela objektiboa, guztiz subjektiboa baizik. Horren ondorioz, ikaskuntza modu desberdin batean emango da indibiduo baten eta beste baten artean nahiz eta objektiboki baldintza berdinetan egon (Efland, 2002) .

1956. urtea baino lehen, pentsamendu eta ikaskuntzaren jatorriaren kategorizazioan aldaketak sumatzen ziren, izan ere Piaget bere teoria kognitiboaren garapenean[2] oinarrituz zioen, ikasle baten eta beste baten artean eman daitezkeen erantzun desberdinak, haurraren garapenaren estadioaren arabera zein irakasgaiaren ikaskuntzaren araberakoa dela. Piaget oso baldintzatuta zegoen bere aurreko formakuntzarengandik, izan ere biologiako ikaskuntzak egin zituen eta bere lanari esker behatu zuen izaki bizidunak une oro moldatzen zirela aurkitzen zuten egoera edo

[1] Bruner, J, Oliver, R., eta Greenfield, P. (1996). *Studies in cognitive growth*. New York:Wiley (Efland, 2002).

[2] Hunt, J.M.(1961). *Intelligence and experience.* New York: Ronald Press (Efland, 2002).

ingurunerari, eta egon zitezkeen aldaketeei. Sinismen hau pentsatzera eraman zion ekintza kognitiboak ere “moldatzeko” eta “antolatzeko” gaitasuna zutela(Efland, 2002).

Bloom-eren[3] arabera ikaskuntza ez da soilik alderdi kognitibora mugatzen, badira alderdi afektibo eta psikomotoreak ere, eta hasiera batean artea eta honen ikaskuntza alderdi afektiboan kokatzen zutenez, ez zuen lehentasunik ikerketa eremua izateko. Izan ere, oso modu hierarkikoan zeuden antolatuak eremu hauek: 1.Alderdi kognitiboa, 2. Afektiboa eta 3. Psikomotorea. Hierarkia hau zela eta, Piaget-ek ez zuen haurraren garapen artistikoa ikerketa eremu bezala kontutan hartu eta ez zuen ikertu, honen ondorioz artearen ikaskuntzaren garapenaren ikerkuntza alboratuta gelditu zen urteetan zehar. Honetaz gain, Piaget-ek imaginazioa, sormena eta sorkuntza berriak garrantzia gutxiko lorpenak zirela uste zuenez eta hauetarako behar ziren garapen mentalak behe mailakoak zirela pentsatzen zuenez, Efland-ek (2002) dio ez dela kasualitatea hezkuntzan arteei eman zitzaien trataera, izan ere Piaget-en eragin negatiboaren ondorioz, arteak maila intelektual baxuagoa behar zutelaren sinismena zabaldu zen.

Bestalde, Piaget-en teorian oinarritzen ziren beste ikerlari batzuk zeuden, baina hauek ulertzen zuten indibiduo bakoitzaren garapen kognitiboaren arabera artelan baten aurrean erantzun ezberdinak eman ahal zituztela. Gauzak horrela, Parsons[4]-ek pertsonen ulermen estetikoaren garapenaren estadioak ikertu eta azaldu zituen. Estadio hauek idei ezberdinetaz osatutako idei taldeak dira eta honela izendatu zituen: 1.- Gustokoena (5 urte), 2.- Edertasuna eta errealismoa ( 10 urte), 3.- Adierazpena (nerabezaroa), 4.- Estiloa eta forma (heldu gazteak), 5.- Autonomia (ondo formatutako helduak) (Efland, 2002).

Parsons-ez gain, 1970.hamarkadako hasieran Gardner-ek[5] ere asko ikertu zuen alderdi kognitiboaren garapenaz arteen ikaskuntzan. Garapen artistikoaren ikerketa aukeratu

---

[3] Bloom, B. S (ed).(1956). *Taxonomy of educational objectives:Cognitive domain.* New York: McCay.(Efland, 2002)

[4] Parsons, M. (1987). *How we understand art: Acognitive developmental account of aesthetic experience.* New York: Cambrige University Press. .(Efland, 2002).

[5] Gardner, Howard. (1983). *Frames of mind: The theory of multiple intelligences.*New York:Basic Books.

zuen, honen aburuz alderdi kognitibo zein afektiboak elkarlotuak zeudelako eta hamarkada bat beranduago, bere inteligentzia anitzen teoria argitaratu zuen. Honen arabera, zazpi inteligentzia mota daudela baieztatu zuen eta Piaget-en teoriari guztiz uko egiten zion, Piaget-ek aipatzen zuen inteligentzia logiko-zientifikoa beste inteligentzia motak baino garrantzitsuago edo maila altuago batean kokatzen ez zela argi utziz.

Bitartean, Vygotskyren aportazioak ikaskuntzaren prozesuan oso garrantzitsuak izan ziren ere. Honen aburuz, norbanakoak ikasten duen gehiena gizarte baten parte izatearen ondorioa da, hau da, ikaskuntza gizarteratua egoteagatik ematen dela dio. Honen ondorioz, pertsona bakoitza bere gizarte eta kulturan dauden ikaskuntza eskemen arabera ikasten du eta bere kulturaren jakintza egituren arabera eta hauetan oinarrituz ikasiko du (Efland, 2002).

Vygotskyren[6] arabera, ikasleak edo edozein pertsonak bere kulturan kokatuta dauden egitura kognitibo konplexuak bereganatzen ditu gainotzeko izakiekin interakzioan egon eta gero, hau da, bere guraso, anai-arreba, lagun, bizilagun, etab…ekin interakzioak izan ondoren. Beraz, erlazio hauei esker, bera bakarrik ulertzera helduko ez litzatekeen zerbait ulertu dezake, horrela ezagutza eta jakintza beraz, ikaslearen kulturalizazioaren ondorioa bezala ulertzen da. Hala eta guztiz ere, Efland-ek (2002) dio honek ez duela arrazoitzen nola erakitzen ote den ezagutza berri bat, hau da, nola sortzen den kulturan momentu honetan existitzen ez den ezagutza berri bat. Zer da pertsonei ezagutza berri bat eraikitzen uzten diguna? edo nola sortu daiteke oraindik existitzen ez dena? Hau artearentzat galdera garrantzitsua da, izan ere, hemen imaginazioa, sormena eta intuizioa parte hartzen dutelako.

Ildo horretatik, Arnheim[7] izeneko ikerlariak ziurtatu zuen pertzepzioa esfortzu kognitibo bat dela eta artelan bat sortzeak problema baten ebazpenaren antzeko prozesua daramala, alderdi kognitiboan guztiz oinarritzen delako. Izan ere, haur batek,

[6] Blank, G (1990) "Vygotsky: The man and his cause". En:L.C.Moll(ed.),*Vygotsky and education: Instructional implications and applications of sociohistorical psychology* (pp.31-58). New York: Cambrige University Press. (Efland, 2002).

[7] Arnheim, R.(1954). "Art and visual perception". Berkeley: University of California Press.

edo artista batek marrazki bat egiten duenean ez du soilik ikusten duena errepikatzen, baizik ikusten duen hiru dimentsioko objektu hori bi dimentsiotara pasa behar du hiru dimentsioko egitura errespetatuz, beraz esfortzu kognitibo izugarria egiten du (Efland, 2002). Beraz, agian esan genezake alderdi kognitiboa gero eta garatuago izan, orduan eta artista hobeagoa izan gaitezkeela, baina hori oraindik ikertu ez denez, esan dezakegun gauza bakarra da, azken finean, artista bat arazoak gainditzeko gaitasuna duen pertsona mota dela.

### 1.2. Artea eta kognizioa

Argi daukagu artea eta kognizioa elkarrekin doazela, bata bestearen beharra eta menpekotasuna duela, bestela ezinezkoa izango litzateke artea sortzea. Hau da, dagoeneko ez dugu defendatu behar arteak kognitiboak diren ala ez, baizik eta orain jakinarazi behar duguna da zer nolako onurak ekarri ditzaketen gure norbanakoaren garapenean; are gehiago, orain artearen bitartez zer nolako gaitasun kognitiboak garatzen diren jakitea interesatzen zaigu (Efland, 2002).

Beraz, jakinmin hauei erantzuna emateko, Efland-ek (2002) “Arteak eta kognizioa” liburuan hiru argudio nagusi azaltzen ditu arteen balio kognitiboa defendatzeko:

- *Malgutasun kognitiboa*

Malgutasun kognitiboari esker gai gara egoera zehatz batek exigitzen duen egitura kognitiboa moldatzeko eta modu horretan egoerak eskainiko dizkigun ezagutzak bereganatzeko, baina malgutasuna izateko beharrezkoa da estrategia errepertorio anitza izatea horrela ikasi ditugun estregia guztien artean momentu horretarako egokiena dena aukeratu ahal izateko.

Ildo honekin jarraituz, pertsonak anitzak diren bezala, bakoitzaren estrategiak, errealitatea ikusteko modua eta interpretazioak egiteko modua desberdina izango da, horregatik arteaz eta interpretazioaz hitz egiten dugunean ezin dugu orokortu, izan ere, pertsona bakoitza ezagutza hondo desberdina dauka eta lortu nahi dituzten helburuak ere desberdinak direnez, bakoitzaren interpretazioak ere desberdinak izango dira, baina horrek ez du esan nahi artelan baten interpretazioa beste

interpretazio bat ukatzen duenik, are gehiago, interpretazioen bilduma kultura aberasten du, izan ere artelan zahar baten aurrean interpretazio berriak izatea, gizartearen isla baten seinale da.

Beraz, zergatik dira arteak kognitiboki garrantzitsuak? Interpretazio desberdinak sortzeko egoera desberdinak sustatzen dituelako. Eta interpretazioaren gaitasuna oso garrantzitsua da ez bakarrik artelanak hobetu ulertzen laguntzen digulako, eguneroko bizitzan suertatzen zaizkidun zenbait egoera hobeto ulertzeko.

- *Ezagutzaren integrazioa artearen bitartez*

Artelan bat, momentu zehatz bateko gizarte eta kulturarengandik izan duen eragina, eta artistak artelana egiteko hauteman eta sentitutako arrazoien islada dela esan dezakegu. Hau da, artelanek zentzua hartzen dute testuinguru kultural zehatz baten barnean kokatzen ditugunean, eta modu honetan ere, kultura artearen hizkuntzaren bitartez irakurtzen dugunean hau ulergarria bihurtzen da. Hori dela eta, artea behar beharrezkoa dela ikusi da eta Efland-ek (2002) honetan oinarrituta, arteak eskola curriculumaren erdigunean eta gainerako arloekin elkar eraginean egon beharko lukeeela proposatzen du.

Honek ez du esan nahi artelan baten bitartez dena ulertu dezakegunik, baina artelan zehatz bat testuinguru batean kokatzen dugunean informazio ugari atera dezakegula argi dago. Askotan, ikusleak galdetuko diote bere buruari ea zer den edo zer ari den gertatzen, eta galdera hauen erantzunak bilatu nahian eta interpretazioa aurkitu nahian egiten den esfortzu kognitiboari esker, ikaskuntza eta artelanaren ulermena lortzen dira, esperientzia estetiko batez gozatzeaz gain, noski. Prozesu honi Hans eta Shulamith Kreitler-ek (1972) “orientazio kognitiboa” izendatu zioten.

Gauzak horrela, artelan baten ulermena egokia lortzeko, artelanaren garaiko alderdi sozial zein kulturalak kontutan hartu behar dira eta modu honetan ere, artelanak lagunduko dio ikasleari artelanak isladatzen dituen mundu sozial eta kulturalak ezagutzen.

- *Irudimena*

Arteen bidez lortu daitezkeen gaitasun kognitiboen artean ere, metaforaren eta narratibaren erabilerak daude. Hauek “arrazionaltasun irudimentsu bat” eskaintzen dutelako eta hauen garapenari esker ulertzeko zailak diren bizitzaren zenbait alderdi ulertzen laguntzen dutelako. Esate baterako: sentimenduak, esperientzia estetikoak, praktika moralak, eta kontzientzia espirituala.

Efland-ek (2002) dio metafora aztergai nagusi bilakatu behar dela artea aztertzean. Pertzepzio berriak eta ikuskerak ematen duen alderdi horrek, pentsamendua pizten duelako eta beharrezkoak diren irudimen jauziak sortzen laguntzen duelako.

Laburbilduz, arteen funtzio nagusia “errealitatean eraikuntza” da. Arteak munduaren errepresentazioak egiten ditu. Hauek benetako munduaren inguruan izan daitezke, edo irudimenezko munduarenak. Beraz, artea irakastearen helburua bizi garen gizartea eta kulturaren ulermena lortzea da, esan bezala, artelanak metaforaren bitartez isladatzen baitu munduan gertatzen dena.

*1.2.1. Arteak norbanakoan duen eragin positiboa*

Hezkuntza jarduera guztiek bezala, arte plastikoek hezten ari den pertsona ondo garatzen eta bizitzarako prestatzen lagundu behar dute.

Gizakiaren ezaugarri eta ahalmenak errepasatzen baldin baditugu, konturatuko gara ahalmen horietarako guztietarako arte plastikoen eragin zuzena izan dutela. Eta hurrengo hauek dira artearen bitartez lortu daitezkeen zenbait gaitasun (Marin Viadel, 1991):

- *Arte plastikoak adimenaren garapen gisa*

Dirudienez, jarduera artistikoek bestelako zeregin batzuk (irudimena, sentsibilitatea, intuizioa) erabiltzeko joera handiagoa daukate adimen soila baino. Eta horren ondorioz, adimenaren eta talentu artistikoaren arteko harremana oso erakargarria izan da ikertzaileentzat, horregatik horri buruzko estrategiak, metodoak eta ikertzeko teknikak etengabe garatu dira, baina gehienetan atera ohi den ondorioa izan da ez

dagoela harremanik adimenaren (behintzat adimen testek neurtzen duten adimen mota eta modua) eta ahalmen artistikoaren artean.

Adimena egituratzen duten funtsezko lau dimentsioetatik (arrazonamendu abstraktua, zenbakizko arrazonamendua, hitzezko arrazonamendua eta arrazonamendu espaziala), gutxienez bat arte plastikoen irakaskuntzaren berezko eremua da.

Ahalmen edo adimen espazialak espazioan figura eta elementuak asmatu, antzeman, aldatu eta eraldatzearekin dauka zerikusia, baita figura eta elementu horien irudikapenekin ere: planoak, mapak, marrazkiak, argazkiak, eskemak, ereduak, maketak…egiteko baliogarria baita.

Hasieran aipatu dudan bezala, arte plastikoetan, bi dimentsio soilik dauden lekuetan, espazioak, bolumenak eta sakontasuna irudikatzen dira etengabe; objektu bat hainbat ikuspuntutik imajinatzen da eta kolorea erabiliz planoen arteko distantziak iradokitzen dira. Hori guztia egitean adimen espazialaz erabiltzen da eta bide batez ere, adimen bera garatzen ari da.

- *Arte plastikoak sormenaren garapen gisa*

Arte plastikoen irakaskuntzak hainbat ahalmenekin izan dezake zerikusia, eta horien artean sormena da loturarik estuena duena. Artean ez du lekurik kopiak, errepikapenak ez formulak, baizik eta artearen bereizgarriak originaltasuna eta ezustekoa dira. Gainera, zientzian askotan deskubrimenduei buruz hitz egiten da sorkuntzaz baino gehiago, baina artearen eremuan aldiz, "sorkuntza" terminoa behar bezala erabiltzen da.

Sormena garatzeko hezkuntza plastikoaren bitartez izan behar zela defendatu zuen egilerik sutsuena Lowenfeld izan zen eta honako hau esan zuen: "*Seguruenik, gure eskoletan irakatsi beharko liratekeen oinarrizko trebetasunetako bat (…) erantzunak bilatzeko eta deskubritzeko ahalmena da, baina justu kontrakoa egiten da. Bestalde garrantzitsua da haurrari gaur egun daukan jakintzarekin sortzeko aukera ematea.*" (Lowenfeld eta Lambert Brittain, 1977, 4.or[8]).

[8] Lowenfeld, Viktor eta Lambert Brittain, W.:(1997)*Desarrollo de la capacidad creadora.*(Marín,R ,1991)

- *Arte plastikoak pertzepzioaren eta sentsibilitatearen garapen gisa*

Arte hezkuntzako ideiarik nagusienetariko bat hau da: arteek, eta orokorrean esperientzia estetikoek, zerikusia daukate funtsezko zentzumenekin: ikusmenarekin eta entzumenarekin. Eta beraz, artea eginez norbanakoaren pertzepzioko ahalmenak eta sentsibilitatea findu egingo dira.

"*Artearen hezkuntza, zentzumenen esperientzien garapena ardatz hartzen duen diziplina bakarra da. Eta haur bat edo heldu bat esperientzia horietan plazerra eta poza aurkitzeko gai izan behar dira*" (Lowenfeld eta Lambert Brittain, 1977, 14-15 orr.)[9].

Argi dago gizakiok zentzumenen bitartez ikasten dugula, beraz zentzumenak zorrozteko gero eta aukera gehiago izan, ikasteko aukera hainbat eta handiagoa izango da.

Rudolf Arnheimek (1976)[10], arte bisualen psikologorik ospetsuenak, ikustearen eta pentsatzearen artean elkarreragin estua dagoela esan zuen eta beraz, arte plastikoen irakaskuntza pentsamenduan funtsezkoa dela, irakaskuntza horrek pertzepzio bisuala garatzen duelako, bere iritziz, ezagutzazko eragiketen multzoa, (hau da pentsamendua), ez dira pertzepzioa baino gorago eta haratago dauden prozesuak, pertzepzioaren beraren funtsezko osagaiak baino. Beraz, badirudi pertzepzioan pentsamenduaren prozesu guztiek eragiten dutela, eta orduan pertzepzio bisuala, pentsamendu bisuala dela dio

Honek guztia hezkuntzan izan ditzakeen ondorioak argi daude orduan: "*Ezagutzaren eremu osoan pentsamendu produktiboa pertzepzioko pentsamendua dela aintzat hartzen bada, orduan agerian jarriko da arteak hezkuntza orokorrean daukan funtsezko zeregina*" bitartean ez (Arnheim, 1976, 293.or).

[9] Lowenfeld, Viktor eta Lambert Brittain, W.:(1997)*Desarrollo de la capacidad creadora.*(Marín,R ,1991)

[10] Arnheim, Rudolf: (1976)*El pensamiento visual.*EUDEBA, Buenos Aires.(Marín Viadel, 1991)

- *Arte plastikoak adierazteko eta komunikatzeko ahalmenaren garapen gisa*

Lowenfeld-ek[11] (1977) dio, haurra, izaki dinamikoa den heinean, artea, funtsean, adierazteko bidea dela eta haientzat artea pentsamenduaren hizkuntza bat dela. Beraz, hazten den heinean mundua beste modu batez ikusiko duela eta bere adierazpena aldatzen joango dela, bere adierazteko modu berrietara moldatuz.

- *Arte plastikoak emozioaren eta sentimenduaren garapen gisa*

Arte plastikoen ikasketaren barruan emozioak eta sentimenduak garatzearekin zerikusia daukaten alderdiak ere sartzen dira. Jarduera artistikoek sentimenduaren hezkuntzarekin eta prestakuntza moral zein etikoarekin daukaten zerikusia Ipar Amerikako eskolak aztertu du bereziki.

Broudy-k[12], zioen (1977) arabera, zientziak pentsamenduarekiko duen harreman bera, arteak sentimenduekiko duena da. Beraz, esan daiteke, arteak sentimenduak antolatzen dituela eta zentzumenek antzeman dezaketen forma adierazkor bat ematen diela.

- *Arte plastikoak nortasunaren garapen gisa*

Lowenfeld-en (1977) arabera, adierazpen artistikoak nortasun orekatuaren funtsezko ezaugarrien garapenean zeregina dukala argudiatzen du. Honako hauek dira ezaugarri horiek: autokonfiantza, autoestimua, lanarekiko identifikazioa, etb..

Beraz, arteak, gure nortasuna garatzen eta ezagutzen laguntzen digun heinean, arrazoi nahikoa izango litzateke artea programetan txertatzeko, eta merezi duen garrantzia emateko.

Ikusi dugun bezala, jarduera artistikoek funtsezko zeregina izan dezakete gizakiaren hainbat dimentsioetan, esate baterako hauen garapenean: adimena, sormena, pertzepzioa, adierazkortasuna, emozioa eta nortasunean. Gaitasun hauetaz gain,

[11] Lowenfeld, Viktor eta Lambert Brittain, W.:(1997) *Desarrollo de la capacidad creadora.*(Marín,R ,1991)

[12] Broudy, Harry S.:(1997) *How basic is aesthethic education?or Is ´Rt the fourth R*?"Language Arts", 54 (6), 631-637.

arteak baditu beste ondorio positibo batzuk, esate baterako, laguntzen digu norbanakoaren bizitzaz kontzienteago izateko.

*1.2.2. Artearen bitartez bizitza kontzienteago bihurtu dezakegu*

Ellen Dissanayake-k (1988) "*Para qué sirve el arte*" lanean aipatzen duen bezala, artea izan da izakiaren garapen ebolutibo konplexuan parte hartu duen jarduerarik garrantzitsuena, eta beraz artea gizakiak duen oinarrizko behar bat dela dio. Ideia hau argudiatzeko, arteak giza bizitzari ematen dizkion zenbait ezaugarri positibo azaltzen ditu. Artearen bitartez hauek lortuz gero, bizitzaz kontzienteago izango garelakoan.

Dissanayaken (1988) arabera, arteak kontraesanak eta kontrako sentimenduak integratu ditzake eta horrek laguntzen digu, momentu batez baldin bada ere, mundu paralelo edo alternatibo bat ezagutzera. Honi esker, kontsolamendu ilusioak jasotzen ditugu eta modu honetan arteak kontrako emozioen katarsia bideratu ditzake. Hau da, arteak lagundu gaitzake gure kontraesanak ezagutzen, onartzen eta haiekin elkarrekin bizitzen. Honekin batera, arteak gure burua prestatzen laguntzen digu bizitzan zehar aurkitu ditzakegun egoera ezezagunen aurrean egoten jakiteko.

Ildo horretatik, arteak aukera ematen digu errealitatea asimilatzeko. Hau da, gure egunerokotasun eta errutinak ikusten uzten ez dizkigun gauzak, artearen bitartez, bizitza beste ikuspuntu batetik ikusi eta ulertzen laguntzen digu. Horrela, arteak, denboraldi batez bada ere, berreskuratzen eta berriztatu egiten ditu gauzen esanahia, baita haien balioa eta botere emozionala. Arteak zuzenean funtsezko gauzekin konektatzen gaituelako (Dissanayake, 1988).

Bestalde, oso ondo dakigun bezala, artea metaforaz baliatzen da zerbait trasmititzeko, edo gure barruko sentimenduak, zein gure nia-tik ezagutzen ez ditugun alderdiak agertzeko eta modu inkontziente baten bidez adierazteko eta kontziente bihurtzeko. Hots, artea modu honetan, erraztasunak eskaintzen dizkigu gure egunerokotasunak edo gure gogamen praktiko-logikoak erreprimitzen diguna adierazi eta ezagutzeko.

Azkenik, singulartasuna adierazteaz gain, artearen funtziotariko bat lotura soziala piztea izango litzateke. Besteak hobeto ulertzeko, onartzeko eta enpatikoagoak izateko.

Esan bezala, arteak anbiguotasuna onartzen edo jasaten irakasten digu eta beste modu batez sentitu ezin ditugun intentsitate handiko emozioak eskaintzen dizkigu (Dissanayake, 1988).

### 1.3. Kognizioa eta emozioa

Urteetan zehar sufritu izan dugun hezkuntza mota, orain modu inkontziente batez trasmititzen diegu gure haur, seme-alaba eta ikasleei eta modu honetan hainbeste gorrotatzen dugun hezkuntza mota hau gure artean jarraitzen du.

Hezkuntza mota honek batez ere funtsezko bi elementu elikatzen egon da. Alde batetik, norbanakoaren alderdi emozionalaren ukazioa eta bestalde, indibidualismoa goraipatzen zuen, hau oinarritzat hartuta (López F.Cao, 2008).

Lehenik eta behin, soilik arrazionalak ziren gaitasunak goraipatzen zituen hezkuntza mota izan dugu. Alderdi emozinalatik guztiz bereizi egiten gintuena, eta  zehaztasun zientifikoa lortzen uzten zizkiguten ezaugarriak azpimarratzen zituen hezkuntza mota izan dugu.

Jarrera zientifikoa irakasteak, emozioak ahaztea exigitzen zuen, pultsioak kontrolatzea, eta egoera emozionalak eta pertsonalak alderdi zientifikotik banatu behar ziren. Hau da, ikasleei izozte emozionala exigitzen zitzaien, uste baitzen norbanakoaren alderdi emozioanala lainotu edo distortsionatzen zuela benetako ikaskuntza. Hau dela eta, ondorio larriak egon dira pertsonen bizitzetan, esate baterako, pertsonak izaki zatituak bezala bizi dira, haien emozio eta sentimenduengatik gaizki sentitzen direnak eta emozioak gaizki kudeatzen dituzten pertsonen artean bizi gara gaur egun.

Lehen aipatu dudan bezala, hezkuntza hau ere indibidualismoaren ezaugarria azpimarratzen zuen, besteen beharra ez dugularen mezua behin eta berriz errepikatuz, dependentzia, ahultasunaren sinonimotzat ulertzen zelako. Horren ondorioz, orain pertsona bakartiak sortu ditugu, inongo lotura afektiborik gabekoak, besteen azalean jartzen ez dakitenak, bestea zaintzeko zailtasun larriekin, etab (López F.Cao, 2008).

Horregatik, lan honen bitartez ere azpimarratu nahi da, hezkuntzan gorputza eta emozioa ere kontuan hartu beharreko elementuak izan beharko liratekeela izaki baten garapena integratuagoa izateko, hauek funtsezko piezak bezala ulertzen ditugulako, hauek zainduz eta ulertuz haurraren garapena askoz koherenteagoa, ulergarriagoa eta jariotasunez aurrera egingo lukeelako.

López F. Cao-k (2008) dio, Antonio Damasiok aditzera eman zuela emozioa garunean aurkitu dezakegula eta emozioak menperatzeak neuronen konfigurazioan aldaketak ekarri ditzakeela, eta horren ondorioz, garrantzitsua da aipatzea emozioen hezkuntza eta sentsibilitatea, ez bait du soilik gure jarrera eta nortasuna aldatzen, baita mundua ulertzeko modua eta berari aurre egiteko gaitasun kognitiboa ere.

Orain arte esan dena kontuan hartuz, pentsatzearen prozesua kognizio eta emozio, gogamen eta sentimenduen arteko interakzio konplexu bat bezala ulertzen badugu, artea ez da hau guztiarengatik oso urrun ibiliko, behin baino gehiagotan artea definitu izan bait da emozioen bitartez lortutako ezaguera bezala. Izan ere, artelan bat martxan jartzen denean, proiektatzeko gaitasuna, aukerak imaginatzea, haien eraginkortasuna konprobatzeak, helburuak egiaztatzea, etab. ematen diren pausoak dira, edozein sortze prozesu baten atzean aurkitzen direnak bezalakoak. Eta edozein metodo zientifikoan bezala, hemen ere kognizio azkarra edo “intuizioa”-k parte hartzen du eta honi esker alderdi emozionalaren garapen osoa ematen da (López F.Cao, 2008).

“Sortzeak”, López F.Caoren (2008) arabera, guk gure burua berriz sortzea ahalbidetzen digu, modu honetan kanpoko errealitatea berriz interpretatzera eramaten gaitu, hobeto ulertzen laguntzen digu eta gure hitzekin adieraztera bultzatzen gaitu, nahiz eta beste batzuen begietara edo beste batzuen iritziz interpretazio okerra egin. Beste batzuetan berriz, artearen bitartez esan ditzakegun gauzak beste modutan ezingo genituen adierazi eta artea erabiltzen dugu agian beste modu batez ez genituelako adieraziko, edo ez delako beste modu bat existitzen.

Horregatik garrantzitsua da, hezkuntza sistemetan alderdi kognitiboari garrantzia ematen zaion bezala, alderdi emozionalari ere bere lekua ematea, bi aspektu hauek modu paralealon landuz gero haurrak modu integratu batez garatuko direlako eta artearen bitartez hau lortu daitekeela argi utzi dugu.

### 1.4. Hezkuntza, pentsamendu motak eta artea

Goian aipatu den bezala, gizarteak zein eskolak pentsamendu mota batean soilik hezi gaituzte, hots, pentsamendu konbergentea edo lineala deitutakoa. 60.hamarkada arte inteligentziaren azterketak pentsamendu konbergente edo linealera mugatu zirelako.

Honekin errealitatea edo egoerak ikuspuntu bakar batetik ikusten dira, egon daitezkeen beste aukera anitzak ezagutu gabe eta albo batera utziz. Gure gizarte eta kulturan nagusitzen den pentsamendu mota lineala da, esan bezala, hezkuntza tradizionaletik datorren mota delako. Modu honetan, zerbaiten aurrean ideia bakar bat kontuan hartzen zen eta soluzio bakar bat zegoen arazo baten aurrean eta zerbaiten aurrean iritzi berdina zabaltzen zen. Horrela, metodo trazionalean oinarritu diren hezkuntza motetan, irakaslea klaseko jakintsua zen eta ikasleei ez zitzaien haien iritzia adierazten uzten, eta are gutxiago jarrera espontaneo bat izatea. Honen ondorioz, haurrak ez ziren aske sentitzen eta ez zen benetako ikaskuntza lortzen, ez bait zitzaien arrazoitzen gauzen zergatia eta arazo edo gatazka baten aurrean ez zitzaien beste aukera batzuk adierazten uzten, irakaslea arrazoia zuen bakarra zelako.

Aldiz, pentsamendu dibergentea bultzatzen eta garatzen laguntzen duen hezkuntzak, ikasleak nahi duen moduan adierazteko askatasuna du oinarri, eta honekin artea harremanduta egongo litzateke, artearen bitartez pentsamendu dibergentea ahalbidetu daitekeelako.

Pentsamendu dibergentea, Álvarez-ek (2010) dion bezala, arazo, gatazka edo egoera baten aurrean ikuspuntu desberdinak aztertzen eta kontuan hartzen dituen pentsamendu mota da. Lehen momentu batean txorakeriak iruditu ditzaketen ideietara ere irekitzen da eta kultura edo gizarte zehatz batean ezarrita dauden erantzunak eta eskemak desartikulatzen ditu, horrela, mugarik gabeko pentsamendu malgutasuna eskaintzen die atera daitezkeen idei edo soluzio desberdinei.

Pentsamendu konbergentea aldiz, orokorrean arazo zehatz baten aurrean erabiltzen den pentsamendu mota da, hau da, pentsamendua norabide bakar batean mugitzen da, oso lineala eta laua dena, test moduko azterketa bat izango balitz bezala, non bost aukeretatik bat egokia den.

Baina badakigu bizitza errealean ez direla erantzun bakarra duten arazoak suertatzen, horrela, pentsamendu konbergenteari esker pentsamendu dibergentea lehenik eta behin zabaldu dituen ideia guztiak (zoroenetatik tradizionalera, hau da mugarik gabekoak) kontuan hartzen ditu eta momentu horretara gehien moldatzen dena edo hobe datorkigun erantzuna aukeratzen du. Horregatik, bai bata zein bestea, pentsamendu osagarriak dira. Baina argi dago, pentsamendu dibergentea garrantzitsua dela bizitzaren edozein egoeran: egora familiarrean, eskolan, lagunekin, lanean, etab…honi esker egoera hauetan arazo bat suertatzen denean lehenago soluzionatu dezakegulako, berezkotasuna aske uzten dugulako eta gauzak ikuspuntu anitz eta zabalagoetatik ikus ditzakegulako.

Gainera, gaur eguneko gizarteak beste pentsamendu irekiago bat eskatzen du, aukera gehiago ematen dituena, izan ere egunerokotasuneko erronkak menperatzeko oso baliogarria da gogamenak eskaintzen dituen beste errekurtsoak: intuizioa, ideia-asozioazioa eta imaginazioa bezala.

Esan bezala, egoera baten aurrean erantzun bakar bat erantzuteko hezi gaituzte, baina artistek aldiz, gizarte edo kulturatik at egoteko gaitasuna izan dute betidanik. Egia ere bada, nahiz eta haiek egindako artelanak haien egoera kulturala eta sozialetaz baldintzatuak egon, beti aurkitu izan dute moduren bat artearen bitartez hitz egin ahal izateko eta mugarik gabe adierazi ahal izateko. Izan ere, Vanderbilt Unibertsitateko zenbait ikerlarik aurkitu zuten musikariak bezalako artistak, garuneko bi hemisferioak erabiltzeko erraztasun gehiago daukatela eta joera gehiago dutela pentsamendu dibergentea erabiltzeko. Are gehiago esan dezakegu, pentsamendu mota hau gehien erabiltzen duten pertsona motak, kuriosoak, sormen handiko pertsonak, arriskuak hartzeko beldurrik ez dutenak, etsitzen ez direnak eta haien ideiei eusten dien pertsona motak dira.

### 1.5. Pentsamendu dibergentea oinarritzat hartuta lortu daitekeen hezkuntza mota

Deweyk (1902), hezkuntza tradizionalaren aurka egin zuen, haurrarengandik espero zen gauza bakarra, irakaslearengandik jasotzen zuen azalpena onartzea zelako, eta pertsona otzanak eta diziplinatuak izatea eskatzen zitzaielako.

Hezitzaile tradizionalen aburuz, haurran zentratutako hezkuntza mota kaotikoa, anarkikoa eta autoritatearen kontrako hezkuntza zela ulertzen zuten. Garaikideentzat aldiz, haurraren espontainetatea eta aldatzeko gaitasuna gorapiatzen zuten eta tradizionalei leporatu egiten zieten haurraren jarrerak, pentsatzeko askatasuna etab erreprimitzeak. Egun, egoera hau ez da asko aldatu, izan ere duela 120 urte hasi zen eztabaida hau, oraindik ez da konpondu nahiz eta gaur egun gizartea kontzientziatuagoa egon pertsonan zentratutako hezkuntza bat egin behar dugula edukien transmisio hutsean baino, hau da, hezkuntzan formakuntzan baino gehiago zentratu behar garela (Álvarez, 2010).

Álvarez-ek dio (2010), 1950ean Guilford-ek Amerikako Psikologiako Elkartean (APA), sormena eta pentsamendu dibergenteari merezi zuten garrantzia eta interesa eskaintzen ez zitzaiela salatu zuen arte, ez zela honen inguruan apenas ikertu eta momentu horretan sormena alderdi mistiko eta magikotik bereizten hasi zela.

Sormena, pentsamendu prozesu bat da zeinen mekanismo intelektual baten bitartez ideiak erlazionatzen diren zerbait berria lortuz, gainera, hau garatu eta hobetu daitekeen gaitasun bat da (Álvarez, 2010).

Pentsamendu sortzaile baten benetako muina, egoera baten aurrean soluzioa aurkitu baino lehen gertatzen den prozesuan datza. Momentu honetan gure oroimenean dagoen informazio anitza beste modu berri eta desberdin batez erabiltzeko gaitasuna martxan jartzen delako eta horregatik esan genezake, prozesu honek pentsamenduaren malgutasuna, zein haratago joateko gaitasunak inplikatzen dituela (Álvarez, 2010).

Beraz, sormena faktore anitzetaz osatutako fenomenoa da, horien artean inteligentzia, nortasuna, kultura eta motibazioa aurkitu ditzakegun batzuk dira.

Inteligentzia eta sormenaren arteko harremanaz hitz egiten denean, uste da pertsona inteligente guztiak sortzaileak izateko gaitasuna dutela, baina ez da egia. Hala ere, inteligentzia maila bat izan behar da sortzailea izateko (Álvarez, 2010).

Gero eta gehiago uste da sormen gehiago ala gutxiago izateak, nortasun kontu bat dela, izan ere badira zenbait ezaugarri esleitzen zaizkionak sortzailea den pertsona

motari, esate baterako: motibazio intrinsikoa duen pertsona bat izan behar dela, kuriositate handikoa, besteen iritzia ez zaiona kezkatzen, etab…Hala ere, badira beste autore batzuk sormena edo pentsamendu dibergentea bizi garen kulturaren araberakoa dela diotenak. Hau da, Csikszentmihalyiren aburuz, sormena pertsona baten pentsamenduak eta testuinguru soziokulturalaren artean ematen da.

Beraz, Álvarez-en (2010) arabera, ez da funtzeskoa jakitea nortasuneko zein ezaugarrik baldintzatzen duten pertsona bat sortzailea izatea ala ez, aldiz, sormenari begira, garrantzitsua izango litzateke jakitea zer baldintza sozial eta kulturalak bete beharko lirateke momentu zehatz batean ezaugarri pertsonal bat abantaila bat bihurtzeko. Gauzak horrela, sormena ez genuke ezaugarri indibiduala bezala ulertuko, prozesu sistemiko bateko emaitza bat baizik.

Gure gizartean eta hezkuntzan nahiz eta poliki-poliki onartzen goaz pentsamendu dibergentearen garapena sormenera eraman gaitzakeen bidea dela, oraindik ere gure artean sormen handiko pertsonak ezagutzen ditugunean, nahiko deseroso sentitzen garela dio Álvarez-ek (2010). Ez gaude ohituta horrelako pertsona mota gure artean izatera eta gure ondotik urruntzen ditugu, baita ere haien ideiak eta pentsatzeko modua erreprimetzen dugu eta gu bezalakoak bihurtzen saiatzen gara.

Gure hezkuntza sistemak gainera, mesede egiten die pentsamendu dibergentea erabiltzen ez duten ikasleei, eta lehen aipatu dudan bezala, sortzailea den ikasleak desiragarria ez den nortasuna izan dezake, gainera barnerakoia izan daiteke, isila eta askotan irakaslearen hitza zalantzan jar dezakeena bere ideia propioak jarraitzea nahiago duelako. Gainera gure hezkuntza sisteman aurrera eramaten den irakaskuntzaren bidez, edukiak zatika erakusten dizkigute gero horiek harremanduz edukia osatzeko, baina pentsamendu dibergentea erabiltzen duten ikasleek nahiago dute lehenik eta behin osotasuna ezagutu ondoren nola lortu den ulertzeko (Álvarez, 2010).

Goian aipatu dudan bezala, pentsamendu dibergentea erabiltzeko joera duten pertsonek zenbait ezaugarri pertsonal bereizgarriak izaten dituzte, esate baterako; haien buruarekiko konfidantza handia dute, esan bezala ez die kezkatzen besteen iritzia, ez dituzte zertan tradizioak edo ohiturak  jarraitu behar, eta haien iritzi eta

sinismenetan konfidantza osoa daukate. Álvarez-en aburuz, (2010) pertsona hauek denbora bat behar dute daukaten informazioa ordenatzeko, asimilatzeko eta horrekin eta aurre ezagutzarekin “insight”aren bitartez zerbait desberdina sortzeko. Batzuetan hezitzaileek ere zalantzak dituzte haur hauek hainbeste denbora bakarrik ikusten dituztenean trastornoren bat izango duten edo gaitasun handiko haurra izango ote diren, baina ez dakitena da pertsona hauek bakartasun momentuak behar dituztela esku artean duten arazoa edo egoera baten aurrean zer egin pentsatzeko, edo besterik gabe zerbait eratzen ari direlako. Izan ere, sortzearen prozesu mentala normalean plano inkontzientean edo prekontzientean ematen da eta esan bezala “insight”aren bitartez kontziente bihurtzen dute, baina horretarako denbora eman behar zaie.

Interesgarria izango litzateke jakitea irakasleok nola lagundu dezakegun pentsamendu dibergente hau haurren artean garatzeko. Hasteko, garrantzitsua da jakitea ikasleari ez zaizkiola edukiak modu goiztiarrean edo garaia baino lehen erakutsi behar, zeren hori egiten dugun bakoitzean aukera kentzen diogu bere kabuz jabetzeko eta pentsamendu dibergentea erabiltzeko. Beraz, hezitzaileok ez dugu haurraren garapena modu zuzenean bideratu behar, horretarako haurraren psikologian formatuak egon beharko ginateke, baita gure irakasgaia oso ondo menperatu beharko genuke, horrela ez ginateke ez liburu zein fitxetan lagundu beharko. Gainera, haurrak beharko zituen estimuluak eskaintzen jakin beharko genuke, irakasgai zehatz hori haurraren heziketaren garapenaren parte izateko eta ez eskolan egoten den beste ordu bat izateko. Hau gertatzeko, irakasleok gai izan beharko ginateke mundua haur zein heldu baten begiez ikusteko (Álvarez, 2010).

Bestalde, garrantzi handikoa da jakitea haurrak hezten diren testuingurua edo giroa zenbateraino baldintzatu dezakeen haurraren garapena, ikaskuntza eta heziketa. Hori dela eta, haurrak haziko diren testuingurua sormena bultzatuko duen lekua izan beharko da. Baina Civarolo eta Barbero-ren arabera (2009) ez da lekura edo espazio fisikora mugatzen, haurrarentzat esanguratsua izango den testuingurua izan beharko da. Honetarako, espazio fisikoa, materiala eta baliabideak, denboraren kudeaketa, gelan emango diren interakzioak etab. kontuan izango ditugu giro hezitzailea eta esanguratsua eraikitzeko.

Ikastetxea edo haurrak heziko diren testuingurua komunitate guztiarekin komunikatzeko erraztasunak ahalbidetu beharko ditu, pertsonen arteko erlazioak bultzatuko dituena, ikaskuntza esanguratsua ahalbidetuko duten materialak eta baliabideak izango ditu eta kuriositatea, sormena eta elkarrizketak estimulatuko dituena. Horretaz gain, idei anitzen adierazpena ahalbidetzen dituen espazioa izan beharko da, non haurrak aske sentituko diren esperientzia desberdinak izateko inongo beldurrik izan gabe. Azkenik, gure helburu nagusia haurrak ondo sentiaraztea, haiengan gogoak eta interesa piztea izango da, haiek lortuko duten ikaskuntza esanguratsua izateko (Civarolo eta Barbero, 2009).

### *1.5.1. Testuinguru sortzailea eraikitzearen garrantzia*

Goian aipatu den bezala, zenbait aldagai kontuan hartu ditzakegu testuinguru sortzailea eraikitzeko. Esate baterako, gela, materialak eta baliabideak, emozioak eta sentimenduak ere kontuan hartu behar dira, baita taldean lan egiteko zenbait teknika erabiltzea kontuan izan beharko ditugu, bukatzeko jolasaren garrantzia aintzat hartu beharko dugu ere bai (Luján, 2003).

Gelari dagokionez, jakin behar dugu hau estimuluz beteriko leku bat izan behar dela, baina kontu handiarekin ibili behar dugu haurra estimulu gehiegikin ez saturatzeko. Esate baterako, gure gelan entzumena estimulatu nahi baldin badugu musika erabiliz, hau bolumen egokian egongo da, haurra ez distraitzeko eta sormena lortu ahal izateko. Bestalde, Luján-ek (2003) dio gure gela giro erlaxatuan oinarritu beharko da eta testuinguru honetan haurra izango da bere ikaskuntza prozesuaren protagonista bakarra, irakaslea aldiz, haurraren ikaskuntza bidean lagunduko dion laguntzailea izango da.

Luján-en aburuz, (2003) material eta baliabideei dagokionez, jakin behar dugun lehenengo gauza zera da, hauek gero eta anitzagoak izan orduan eta hobeago dela, hala ere, materialak oso definituak ez baldin badaude ere hau erraztu dezake sormena eta imaginazioa garatzea. Ildo honetatik, interesagarria da haurrei material desberdinak ahalbidetzea hauek modu diferente batean erabiltzeko. Honetaz gain, behin eta berriro aukerak eman behar diegu haurrei haien ideiak dramatizatzeko, eta objektu desberdinak erabili pertsonai imaginarioak sortzeko. Gainera, garrantzitsua da

estimulu sentsorialak, hau da zentzumenak, garatuko duten jolasak, materialak eta baliabideak eskaintzea, honetarako, zentzumen desberdinak garatzen laguntzeko zenbait jarduera ezberdinak proposatu beharko diegu.

Emozio eta sentimenduen inguruan lan egitea eta hauek ezagutzea eta kudeatzen jakitea ezinbestekoa da haurren ikaskuntzarako zein pentsamendu dibergentearen garapenerako, izan ere, pentsamendu dibergentea garatzeko, Luján-en (2003) hitzetan *beharrezkoa da "euforia", "konfidantza", "bakea" eta "plazerra" bezalako emozioak bultzatzea*.

Bestalde, garrantzi handikoa da taldean egin beharko dituzten jarduerak proposatzea. Taldean lan eginez pentsamendu dibergentea elikatzen delako.

Azkenik, Lujan-ek (2003) dio, pentsamendu dibergentea garatzen laguntzen duen azken aldagai garrantzitsu bat jolasa dela. Jolasaren bitartez, haurra hazten da, garatzen da eta bai bere burua zein besteak ezagutzeko balio zaion tresna da. Hau da, jolasari esker, haurra gizarteratzen hasten da eta mundua ezagutzen eta errealitatearekin jolasten hasten da. Izan ere, jolasak harreman estua eta intrinseka dauka haurra bere errealitatea nola ulertzen duen ideiarekin, horrela haurraren ikuspuntua nolako den ezagutzea ahalbidetzen digu. Gainera jolasa, ikasteko modu naturalena da, horregatik haurra giro lasai eta askean sentitzen denean orduan eta sortzaileagaoa da. Izan ere, momentu hauetan pentsamendu logikoa alde batera uzten dute eta pentsamendu dibergentea aske uzten dute.

#### *1.5.2. Lan proiektuetan oinarrituz*

Badira modu zehatz batzuk haurren pentsamendu dibergentea garatzen laguntzeko baina horiek zehaztu baino lehen, hauek zer metodologia motan oinarritzen diren jakin behar dugu. Hauek, "lan proiektuen" bidezko ikaskuntza metodologian oinarritzen dira. Hau oso garrantzitsua da, alde batetik haurraren ikaskuntza esanguratsua bermatzen duelako eta bestalde, haurren pentsamendu dibergentearen garapenean protagonismo handia duelako.

Dominguez-ek (2000) bere liburuan dio, ekintza praktika hau konstruktibismoaren ideietan oinarritzen dela, baita ikaskuntza globalizatuan ere. Hau da, edukien artean

egon daitezkeen harremanak bizitza errealean ematen diren harreman berak izan daitezkeela ulertzen duen metodologia da, hau da, saiatzen da edukiak modu globalizatuan eta batera ezagutaraztea. Hauek haurren behar eta interesen arabera agertuko dira. Beraz, lan proiektuak egoera arazotsua edo interes handiko egoera batetik hasten da, jarraian haurren aurre ezagutzekin lotzen saiatzen da, ondoren horren inguruan informazioa bilatzen da, eta informazio hau aukeratzen da proposatuko zaizkien zenbait egoeren bitartez. Beraz, argi dago ikaslegoaren inplikazioa ezinbestekoa dela, haiek bait dira ikerketa lana egingo dutenak egunerokotasuneko egoeretatik abiatuz.

Lan proiektuen helburua lortzeko, hau da benetako heziketa esanguratsua lortzeko, zenbait baldintza bete behar dituzte: Ikaslegoarengan interesa piztu behar dute; jarduerek balio intrintsekoa izan behar dute eta proiektuaren garapenaren bidean honek arazo berri batzuk planteatu behar ditu ikaslearen interesa eta kuriositatea izaten jarraitzeko (Dominguez, 2000).

Aipatu beharra dago lan proiektu bakoitzari eskainiko zaion denbora ezin dela zehaztu, lan proiektu bakoitza aldagai askoren menpe dagoelako eta batez ere ikasleen interesak asetzen direnean soilik bukatzen delako. Horrek ez du esan nahi irakasleak ez duenik lan antolaketa bat, baina malgutasun handia izan behar du, izan ere ikasleen espontaineitatea eta inprobisatzeko gaitasuna errespetatu behar ditu (Dominguez, 2000).

Honetaz gain, Dominguez-en (2000) aburuz, berebiziko garrantzia dauka, ikasleen artean zein ikasle eta irakasleen artean komunikazioa ahalbidetzea, gauzak horrela, ikasleen emozioak eta sentimenduak entzun eta errespetatu behar dira, baita haien kezkak, nahiak eta zailtasunak ere, hauetatik lortuko bait dira erakutsi beharreko edukiak. Hala ere, argitu behar dugu haurrek planteatzen dituzten gai guztiak ez direla lan proiektuetan bihurtuko, irakaslearen esku bait dago erabakitzea zein bihurtuko den lan proiektua eta zein ez.

Beraz, azaldutakoa kontuan izanda, lan proiektuen bidez irakasteak bizitza errealean suertatu daitezkeen arazoen aurrean ikasleek nola erreakzionatu dezaketen ikasiko dute.

Ondoren, eta lehen esan bezala, lan proiektuetan oinarritzen diren bi modu zehatz desberdin azalduko dira haurren pentsamendu dibergentea garatzen laguntzeko. Lehenengoari, Álvarez-ek, (2010) “Arazoen soluzioaren teoria orokorra” izendatzen dio. Honen bitartez, gaizki definitutako arazoak, planteamendua nahiko irekia eta osatugabeko instrukzioak izango dituen arazoa da. Horrela, ikasleak egin beharko duen lehenengo gauza arazoa definitu eta bere irizpideen arabera berriz estrukturatu beharko du.

Teoria honen bitartez, ikasleak anbiguotasuna eta zailtasuna lan tresna bezala erabiltzea lortu nahi da, bizitza errealean ez bait ditugu zalantza bakoitzaren aurrean erantzunak ,eta ezjakintasunekin lan egiten jakin behar dugu.

Bada beste modu bat haurren pentsamendu dibergentea bultzatzeko, hau “gatazka” funtzezko elementutzat hartzen duena da. “Gatazka”k gure gaitasun kognitibo eta emotiboak martxan jarri eta garatzen ditu eta sormena elementu erabakitzaile bezala proposatzen du “gatazka” horren aurrean soluzio bat aurkitzeko (López F.Cao, 2008).

“Gatazka” bezala planteatutako egoeren bitartez, haurrak soluzio posible anitzak bilatzen hasten dira, aukera desberdinak imginatzen dituzte, sinbolizatzeko gaitasuna lantzen dute…horrela une oro aldatzen doan mundu baterako prestatzen joaten dira, izan ere, gure bizitzan beti gaude gauzak erabakitzen eta hau egiten ikasi behar dugu. Modu honen bitartez lan egiteak gaitasun anitzak inplikatzen ditu, adibidez: norabide eta erantzun anitzak aipatzeko askatasuna eskaintzen du; gure egunerokotasunarekin zerikusia duten “gatazka”k planteatzen dira; soluzioak emateak inplikatzen du gogoratu behar zarela aurretik gertatu zaizkizun beste egoera batzuen aurrean zer egin duzun, eta horrela ondorio posibleak ebaluatzeko aukera ematen dizu; ezjakintasunerako bidea irekitzen digu eta intuizioa, gorputzak eta emozioak esaten diena kontuan hartzen dute soluzioak ematerakoan; gainera gatazkak anbiguotasuna onartzen du eta frustrazioarekin lan egiten du; bestearen onarpena eta aitormena ere inplikatzen du eta nola ez, prozesu guztia emaitzaren parte garrantzitsua da (López F.Cao, 2008).

Ikusi dugun bezala erraza da ikuspuntu honen bitartez gelan lan egitea, modu honetan gela “bizitzaren laborategia” bihurtu dezakegulako eta metodologia honen bitartez

ikasleek nahigabe eta konturatu gabe bizitzarako ikasten dute eta ez soilik zentzurik gabeko edukiak.

Honetaz gain, lan honek duen beste helburu nagusietariko bat da erakustea artea oinarritzat hartuta pentsamendu dibergentea garatu daitekeela. Honetarako, lehenik eta behin argi utzi behar da ildo honetatik, hezkuntza artistikoaren didaktika goitik behera aldatzen dela, ez baita sekuentzia didaktiko batean oinarritzen teknika edo helburu zehatz batzuk lortzeko, haratago doan irakaskuntza mota bat da. Artearen bitartez ikasleari gehiago jakitera gonbidatzen zaio, pentsatzera bultzatzen zaio, bai bere buruaz zein beste pertsona batzuekin batera, hau da, espazio hausnartzailean sartzera gonbidatzen zaio eta horren ondorioz sortzea ahalbidetuko zaio. Hau guztia, lehen aipatu den bezala, aukera anitzeko “laborategi” bateko giroan sartuta, hemen bizitzan gertatu ahal zaien arazo edo gertaerei aurre egiteko probak egiten dituztelako gero bizitza errealean aurrera eramaten gai izateko.

Azken finean, artea estetikarekin, adierazpen artistikoarekin, hezkuntzarekin eta osasunarekin lotzen da. Inplizituki osasungarria izan daiteke; erlaxatu, abstrakzioa edo frustrazioa ezagutu ditzakegulako obra bat egiterakoan. Pertsona sortzaileak gara eta sorkuntza lana pertsonarengan aldaketak eraikitzeko lagungarria izan daiteke. Esan bezala, artearen prozesu sortzaileak askotariko onurak eragiten ditu, fisikoak zein emozionalak. Artea, edozein adierazpen artistiko delarik ere, gugan miatu eta eremu berriak deskubritzeko baliabidea da. Horrela ba, bigarren maila batean geratuko litzateke obraren emaitza, teknika, polita edo itsusia izatea. Artearen bitartez sentsazioekin eta emozioekin harremanetan jartzea funtsezkoena bait da (Alkain eta Aginako, 2013).

Arteak, obra bakoitza zertarako eta nola adierazi nahi dugun erabakitzeko aukera ematen digu, eta aldaketarako aukera ere eskaintzen digu, prozesu artistikoan aukera barruko bizipenekin aurkituko gara, gure obra gure adierazlea izango balitz bezala, gure nortasuna proiektatuko dugu, gure sentimenduak adierazteko aukera izango dugu, obraren bat-batekotasunak ustekabeko barne-gertaerak agerian utziko ditu eta pertsonaren barneko bidea eraikitzen lagunduko digu (Alkain eta Aginako, 2013).

Laburbilduz, artearen bitartez, pentsamendu dibergentea lortu daiteke, izan ere, arteak, ikasleek beharko dituzten zenbait ezaugarri ahalbidetu ditzake pentsamendu dibergentea garatzeko. Esate baterako; arteak pentsatzera bultzatzeko denbora ematen du espazio hausnartzaileak eskainiz. Denbora honetan, ikasleak askatasun osoa izango du nahi dituen erabakiak hartzeko, nahi eta behar dituen aldaketak egiteko, azkenean zerbait berria sortzeko. Gainera, pertsona sortzaileak garen heinean sorkuntza lana pertsonarengan aldaketak eraikitzeko lagungarria da, beraz argi utzi nahiko nuke, pertsonentzat, gure gorputzarentzat eta gure egoera mentalarentzat kirola oso ona den bezala, sorkuntza bat egiteko edozein momentua ahalbidetzea oso osasungarria dela gure buruarekin ondo sentitzeko. Gainera, pentsamendu dibergentea edozein momentu eta espazioan landu daitekeelaren adibide gisa horra hemen nire ikasleekin egin dugun proiektutxoaren aurrerapen txikia:

*Irudi, marrazki edo margo baten aurrean jartzen garenean lehen begirada batean ikusten duguna eta denbora bat pasa eta gero beste zerbait ikusteko gaitasuna baldin badugu, hor pentsamendu dibergentea lan egin duela esan dezakegu. Hasiera batean erlazionatzen ez genituen zenbait elementu orain elkartu ditugulako eta horrela, konturatu gabe irudi berri bat lortu dugu. Ondoren, ikusi daitekeen irudi berria hain agerikoa denez, edozeinek ikusi eta onartu dezake, irudi berriak identitate berri eta propioa lortuz.*

# 2. MATERIALAK ETA METODOAK

Lan honen hasieran aipatu dudan bezala, esperientzia praktiko batez lagunduko naiz azaltzeko zenbaterainoko garrantzia izan dezakeen artearekin zerikusia duen ekintza praktiko bat, gelako haurren artean pentsamendu dibergentea garatzeko.

## 2.1. Ekintza praktikoa LHko 3.mailako gela batean

Laugarren mailako bigarren seihilabeteko praktikak Atargi ikastetxeko LHko 3.mailako plastikako irakasgaian zentratu ditut gehien bat. Alde batetik irakasgaia asko gustatzen zaidalako eta bestalde nire Gradu Bukaerako Lanaren bitartez, artea oinarritzat hartuta pentsamendu dibergentea garatu daitekeela probatu nahi nuelako, beraz hilabete hauek 3.mailako bi geletan nik proposatu dudan ekintza pedagogikoa praktikara eramateko eta zenbait ondorio ateratzeko aprobetxatu ditut.

### *2.1.1. Testuingurua*

Proiektua, esan bezala, LHko 3.mailako bi geletan aurrera eraman nuen non A gelan 24 ikasle eta B gelan 21 ikasle zeuden. Plastikako 50 minutuko saioa, astean behin bakarrik zuten beraz proiektua 5 saioetara murriztu behar izan nuen haien edukiekin estropezu gehiegi ez egiteko. Beraz, kontuan hartuta nire baliabideak zeintzuk ziren, denbora, espazioa eta lortu nahi nuen helburu nagusia, haiek egindako aurre lan bat aprobetxatu nuen nire proiektuari hasiera emateko.

Inauterietarako erabili zituzten ur botilen oinekin, lorearen inguruan zerbait desberdina egin genezakeela bururatu zitzaidan, lorearen kontzeptuaren inguruan zuten ideia zabaltzeko eta batez ere haien pentsamendu dibergentea ezagutzeko eta hau pixkat bat zabaltzeko.

### *2.1.2. Helburu orokorrak*

Esan bezala, proiektua bost saiotan zehar bilakatu zen eta honen helburu nagusienak honako hauek ziren: Alde batetik, ikasleen pentsamendu dibergentea zabaltzea, hau da, egoera edo kontzeptu baten aurrean ideia desberdinak egon daitezkeela ikustea.

Honekin batera, ikasleei ikustaraztea pertsona bakoitzak errealitatearen alde bat ikusten eta bizitzen duela eta beraz, kontzeptu baten aurrean bakoitzak ideia bat izan dezakeela eta hori kontuan izanda guztiak baliogarriak izan daitezkeela. Modu honetan bestearen iritzia errespetagarria dela ulertu zezaten, eta gure burutazioak ere onartzen laguntzen digun ikuspuntua dela ikusiarazi nahi nuen. Gainera, ekintza praktika honen helburu nagusiena, zerbait bizipena, manipulagarria, aktiboa, dinamikoa egitea, ikasleek eskolako testuinguru batean askatasuna sentitzeko eta haien burutazioei aske uztea zen.

### *2.1.3. Metodologia*

Saio bakoitzean “lorea”ren kontzeptuarekin zerikusia zuen lan bat egitea proposatu nien, eta normalean azalpen luze xamar bat behar zuten jarduerak haientzat guztiz berriak zirelako eta ez zutelako guztiz ulertzen zer eskatzen nien egitea, hala eta guztiz ere taldean lan egiten zutenez haien artean laguntzen ziren.

Gela bakoitzean lau talde osatu ziren eta hauek 5 edo 6 kideetaz osatuta zeuden. Ikasleek haien kabuz aukeratu zituzten ikaskideak taldeak egiterako orduan, eta egia esan A gela, B gelarekin alderatuz, kuriosoa da nola A gelan talde mistoak eraiki ziren bitartean, B gelan neskak neskekin eta mutilak mutilekin elkartu ziren. Talde hauek bost saioetan zehar errespetatu ziren, egin behar zuten lanak talde berdinean mantentzea eskatzen zuelako.

- *Lan proiektuetan oinarrituta*

Lan proiektuen metodologiaren ezaugarriak eta lan egiteko moduan oinarritutako proiektua aurrera eraman dugu. Goian azaldu den bezala, lan proiektuen metodologia haurren interesak eta beharrak asetzen saiatzen den eredua da, beti ere eduki esanguratsuak trasmitituz.

Bestalde, lehen aipatu den bezala, lan proiektuek bizitza errealean suertatu daitezkeen arazoen aurrean ikasleek nola erreakzionatu dezaketen irakastea du helburu nagusietako bat. Proiektu honen bitartez hain zuzen ere, bizitzak eskainiko dizkigun egoeren aurrean erantzun eta aukera desberdin daudela erakutsi nahi da.

- *Parte hartzailea*

Saio bakoitzean proposatzen nuen lana, ikasle bakoitzaren zein taldeen parte hartzea eskatzen zuen, horrela, haiek modu indibidualean parte hartu zezaketen eta ondoren adostunetara helduz talde bezala hitz egin eta lan egin zezaketen. Izan ere, proiektu honen bitartez ere lortu nahi zen beste helburu zehatzago bat zera zen, nahiz eta iritzi desberdinekoak izan adostasunetara iristeko gaitasuna garatzea, ondoren taldekide guztien artean erabakiak hartu ahal izateko.

Ildo horri jarraituz, garrantzitsua da azpimarratzea, proiektu honen bitartez lortzen den beste helburu nagusi bat ikasleen gizarteratzea dela, beste iritzi bateko ikasleekin komunikatu behar direlako adostasunetara iristeko. Horretaz gain, lan proiektu honen bitartez ere ikasleen pentsamendu autonomoa zein kritikoa garatzen dela agerian uzten da, haur askeak eta autonomoagoak bihutu nahian.

- *Praktikoa*

Lehen aipatu dudan bezala, saio hauek praktikoak izatea bilatzen zuten. Ikasleak aske sentitzen ziren zerbait sortzen zutelako eta beraz saio bakoitzean ikasleek zerbait egin, pentsatu, hausnartu, erabaki edo sortu behar zuten.

### *2.1.4. Saioak:*

Jarraian agertuko diren zenbait komentario eta esaldi, ikasleek saioetan zehar esaten zituzten aipamenak dira, baina haien identitatea konfidentziala izateko, agertuko diren izenak guztiz fikziozkoak direla argitzea gustatuko litzaidake.

**1. saioa:**

- **Helburua:**

Lehenengo saioaren helburu nagusia, ikasleen pentsamendu dibergentearen gaitasuna ezagutzea zen.

- **Lantzen diren gaitasunak:**

LOMCEk ezarritako konpetentzia berrien arabera, hauek dira saio honetan zehar lantzen diren gaitasunak:

1. Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna

5. Gaitasun soziala eta herritartasuna.

7. Adierazpen eta kontzientzia kulturalaren gaitasuna.

- **Materialak:**

Saio hau aurrera eramateko behar izan genituen materialak folioak, arkatza, borragoma, margoak eta arbela izan ziren.

- **Denbora:**

Saioa denbora tarte desberdinetan banatu nuen. Taldean planteatu nien galderari erantzuteko 15 minutu eman nien. Ondoren, talde bakoitzak idatzitakoa amankomunean jartzeko 10 minutu izan genituen. Ondoren, bakoitzari eskatu nien lan pertsonala egiteko 15 minutu eskaini nizkien. Guztira 50 minutuko saioak dira, baina kontatu ez nituen gainontzeko 10 minutuak ez ziren soberan egon.

- **Garapena:**

Aprobetxatuz aurreko egunetan botilen oinekin loreak egiten egon zirela, lehenengo saio honetan taldeetan loreei buruzko hurrengo galderari erantzun behar izan zioten. *Zer dakizue loreetaz? Esan loreetaz dakizuten guztia* Haien artean ideiak ateratzen joateko, nik adibide batzuk eman nizkien, esate baterako: nire etxeko lorontzian jaiotzen dira; txirrindularitzako lehiaketa bateko txapeldunei lore sorta ematen zaie; batzuk oso gaizki usaintzen dute; arropa marka batean loreak agertzen dira…

Ondoren, erantzunak komunean jarri genituen eta nik arbelean beraiek esandako 12 idei idatzi nituen.

Hauek dira **B taldekoek** esan zizkidaten ideiak:

| | |
|---|---|
| *- Lorontzietan daude* | *- Landatzen dira eta urarekin eta eguzkiarekin hazten dira* |
| *- Marraztu daitezke* | *- Batzuk txikiak dira.* |
| *- Lorategietan daude* | *- Batzuk oso politak dira* |
| *- Erleek eztia egiteko erabiltzen dituzte* | *- Koadroetan daude* |
| *- Mendian daude* | *- Oxigenoa botatzen dute.* |
| *- Munduan lore asko daude* | *- Etxeetan daude* |

Eta hauek dira **A taldekoek** esan zizkidaten ideiak:

| | |
|---|---|
| *- Usain desberdina dute* | *- Loreetatik polena ateratzen da* |
| *- Motxiletan daude* | *- Naturalak dira* |
| *- Martxoaren 21ean hazten dira* | *- Lore desberdinak daude* |
| *- Kolore desberdinak dituzte* | *- Petaloak dituzte* |
| *- Leku askotan daude* | *- Erleek polena hartzen dute loreetatik* |
| *- Baratzetan daude* | *- Lore dendetan daude* |

Azkenik, ikasle bakoitzari folio bat eman nion eta marrazki bat egitea eskatu nien. Marrazkiaren gaia hurrengo hau izan zen: *Imaginatu eta marraztu loreak egon daitezkeen egoera desberdinak*. Eta hurrengo hauek dira adibide batzuk:[13]

**B Taldeko zenbait marrazki**

Saiatuko naiz baldintzatugabeko marrakietaz hitz egiten. Kontutan izanda arbelan beraiek esandako hamabi ideia desberdin idatzi genituela, nire ustez hauengandik gutxiago baldintzatuak dauden marrazkietaz hitz egiten saiatuko naiz.

[13] 1.saio honetan egin zituzten marrazki guztiak ikusi ahal izateko, eranskinetera joan.

*1. Taldetik:*

- *Mikel eta Anderrek lore desberdin bat egin dute, petalo desberdinak dituztenak. Mikelek kolore bizi eta desberdin margotua.Anderri aldiz, ez zion denborarik eman bere marrazkia margotzeko.*





*2. Taldetik:*

- *Mariak sustraiekin egin du.*
- *Nerea hain normalak iruditzen ez zaizkigun formakoak egin ditu petaloak, baita petalo bakoitza kolore desberdinez margotu ditu.*





*3.Taldetik:*

- *Imanolek, loreak zer egoera desberdinetan eta zertarako erabili ahal diren marraztu ditu, esate baterako: lorontzi batean egongela apaintzeko, koadro batean, afari intimo bat izatean erdian jartzen diren loreak mahaia apaintzeko.*
- *Ioritzek txoria loreak baino handiagoa egin du, txoriari marrazkiaren protagonismoa emanez; baita loreak pertsonen arteko harremanetan zer nolako funtzioa dutela ere adierazi du.*




*4. Taldetik:*

- *Danelek forma desberdinetako loreak marraztu eta margotu ditu.*
- *Karlak edo leiho batetik ikusten diren pistak marraztu eta margotu ditu edo pareta batean zintzilikatuta dagoen koadro bat egin du.*
- *Laurak oso modu berezian kokatuak dauden loreak egin ditu. Lore hauek behera begira daude, horiak dira eta ez dute betiko forma hartzen. Triste egongo balira bezala daude.*





**A.TALDEA:**

*5. Taldetik:*

- *Unaik ertsona batzuk loratagia zaintzen eta horretan lan egiten marraztu ditu.*
- *Nora ekilore bat marraztu eta margotu du. Gainera sustraiak eta guzti marraztu dizkio.*





*6. Taldetik:*

- *Odei ekilorearen antza baina beste kolore bateko lorea egin du.*
- *Iñaki, pertsona baten aurpegiaren perfila marraztu eta margotu du, ematen du lorea usaintzen ibiliko balitz bezala, baina argi dago, nahiz eta lorea erdian egon, atentzio gehien deitu egiten duena aurpegi erraldoia dela.*
- *Ibai lore desberdinak dituen lorategi bat ikusten da. Mota desberdinetakoak eta kolore desberdinetakoak egin ditu. Gainera motxila baten barruan lore sorta bat marraztu eta margotu du.*
- *Mirenek petaloetan puntitoak dituen lorea margotu du. Baita beste forma desberdina duen lorea marraztu du ere.*









*7.Taldetik:*

- *Jokinek forma desberdina duen lorea egin du.*
- *Idoiak baratzeko loreategian lantzen ari den pertsona bat marraztu eta margotu du.*
- *Laura, lore batzuk marraztutak dituen motxila bat marraztu eta margotu du.*







*8.Taldetik:*

- *Martinek petaloak kolore desberdinez margotu ditu eta lorearen usaina ere marraztu dio.*
- *Juanak forma ezberdina duten loreak egin ditu. Baita ere lanpara baten gainean apain gisa erabili ditu. Bukatzeko, ate batean bi lore margotu ditu atea apiantzearren.*
- *Eiderrek petaloak kolore desberdinez margotu ditu, baita marrak gurutzatuz atera zaizkion marrazkiak egin ditu petalo bakoitzaren barnean. Baita ere loretik ateratzen duen usaina margotu du.*







Bukatu zutenean, niri eman zizkidaten egindako marrazkiak eta azkenik eskatu nien hurrengo astearterako, hau da, hurrengo saioareko hiru "lore" ezberdin ekartzea.

- *Eider: alio du kolore desberdineko loreak ekartzea?*

- *Maria:Nire ama lorategi batean lan egiten du, esango diot lore batzuk ematea guztiek izateko.*

- *Eider:Baina hori ez du balio, bakoitzak bere loreak ekarri behar ditu, ezta?*

- *Ni:Bai, bakoitzak aukeratutako hiru lore ekarri beharko ditu hurrengo asteartean*

*- Ibai:Baina nik bakarrik bitxiloreak ezagutzen ditut, eta gainera hauek dira kalean hartu dezakedan lorea*

*- Mikel:Baina benetazkoak ez direnak ere ekarri daitezke?*

Hobeto zehazteko zer lore mota nahi nituen beraiek ekartzea, adibide batzuk eman nizkien: benetazkoak, lehorrak, aldizkari batean ateratzen direnak, marraztutakoak, tatuaje batean agertzen direnak, abalorioekin egindakoak, itzalarekin egindakoak, argazkiak, zuen ustez lore bat izan daitekeen objektu bat…eta jarraian loreen inguruan prestatu nuen ikonoteka bat erakutsi nien, hau erreferentzia bezala izateko. Eta ikonoteka ikusten zuten bitartean horrelako komentarioak egin zituzten:

*- Ane:Nik ez nekien hori lore bat zela…*

*- Nerea:Hori lore bat da? Sumendia ematen du*

*- Berta:Baina horiek existitzen dira? Benetazkoak dira?*

**2. saioa:**

- **Helburua:**

Ikasle bakoitzak ekarritako “lore”ekin taldeetan lorategiak diseinatu behar izan zituzten, baina horretarako nire helburu nagusiena zen haiek ulertzea lorategi bat, loreen kasuan bezala, ez dutela zertan guztiak berdinak izan behar, eta mota, material, kolorea, forma, … askotako lorategiak egon daitezkeela.

- **Lantzen diren gaitasunak:**

LOMCE k ezarritako konpetentzia berrien arabera, hauek dira saio honetan zehar lantzen diren gaitasunak:

5. Gaitasun soziala eta herritartasuna.
6. Ekimen pertsonala eta ekintzaile izatearen gaitasuna.
7. Adierazpen eta kontzientzia kulturalaren gaitasuna.

- **Materialak:**

Kasu honetan, nire azalpena emateko eta nire loreen sailkapena erakusteko ordenagailua eta pantaila behar izan genituen, baita nik aurkitu nituen lore anitzak. Honetaz gain, ikasle bakoitzak ekarri zituen “lorea”ak erabili genituen.

- **Denbora:**

Kasu honetan ere denbora tarte desberdinetan banatu nuen: Bakoitzak ekarri zituen "lore"en aurkezpena egiteko 10 minutu behar izan genituen. Nire azalpena egiteko 5 minutu behar izan nituen. Taldeetan haien lorategia diseinatzeko 15 minutu eman nizkien eta talde bakoitzak bere diseinua azaltzeko beste 15 munutu izan zituzten.

- **Garapena:**

Saio honetan guztiok borobil handi batean jarri ginen eta bakoitzak ekarritako "lorea"k aurkeztu zituen, bukatzean galdetu nien ea haien ustez zer egingo genuen hainbeste "loreekin", eta hauek izan ziren beste batzuen artean izan zituzten erantzunak:

- *Juana: Marraztuko ditugu*

- *Mario: Kopiatuko ditugu*

Hau da, orain arte ohituta egitera dauden ekintzak esan zizkidaten, baina jarraian lore guzti horiekin talde bakoitzak lorategi bat egingo zuela azaldu nien. Hauek izan ziren haien erreakzioak:

- *Elena: Nola lorategi bat?*

- *Iñaki: Nola egiten da lorategi bat lore hauekin? Ezin ditugu landatu!*

Lanean hasi ziren, baina ez zutenez oso argi nola egin ahal zen lorategi bat beraiek ekarritako "lore"ekin, zaila egin zitzaien eta ez zuten bukatu, beraz hurrengo saioan bukatuko genituela erabaki genuen.

**3. saioa:**

- **Helburua:**

Saio honen helburua, talde guztiek haien lorategiaren diseinua bukatu eta azaltzeko denbora izatea zen.

- **Lantzen diren gaitasunak:**

LOMCE k ezarritako konpetentzia berrien arabera, hauek dira saio honetan zehar lantzen diren gaitasunak:

1. Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna

5. Gaitasun soziala eta herritartasuna.

6. Ekimen pertsonala eta ekintzaile izatearen gaitasuna.

7. Adierazpen eta kontzientzia kulturalaren gaitasuna.

- **Materialak:**

Bigarren saioan bezala, ikasle bakoitzak ekarri zituen “lorea”ak erabili genituen.

- **Denbora:**

Saio hau ere tarte desberdinetan banatu nuen lorategien diseinuarekin eta azalpenekin bukatu eta gero beste hainbat jarduera egin nahi nituelako. Baina lehenik eta behin nik diseinatutako lorategiaren azalpena aurkeztu nien eta honentzat 7 minutu izan nituen. Ondoren, haien lorategiak bukatzeko eta banan banan lorategiak aurkezteko 20 minutu eskaini nizkien. Azkenik, aurrera eraman ez ziren hiru jarduerentzat guztira 25 minutu prestatu nituen, baina zoritxarrez ez zigun denborarik eman horiek aurrera eramateko.

- **Garapena:**

Ikusita bigarren saioan ez zutela oso ondo ulertu nola egin behar zuten lorategia beraiek ekarritako “lore” ezberdinekin, hirugarren saio honetan nik nire “lore”ekin egindako lorategi bat erakutsi eta azaldu nien:



*- Xabier: Baina hau ez da lorategi bat…*

*- Oihane: Non jarriko dituzu hari horiek?*

*- Maria: Ala! Izena balio du?*

*- Karla: Ala, ze guay!*

*- Alex: Baina nola egin duzu?Zergatik egin duzu horrela?*

*- Xabier: Ematen du nola mahai bat*

Ondoren, seguruago eta kokatuago sentitu ziren eta lanari ekin zioten. Ondorioa izan zen, talde bakoitza lorategi guztiz desberdin bat egin zutela. Gainera denbora izan zuten haien ikaskide guztien aurrean nola diseinatu eta egin zuten azaltzeko. Hona hemen talde bakoitzaren lorategiaren argazkia eta azalpenaren puntu garrantzitsuenak:

**B TALDEA.**

1. Taldea:



Ikasleen azalpena:

- *Lehenengo karpeta hauek jarri ditugu loreak hobeto ikusteko.*
- *Gero loreak txikienetik handienera kokatu ditugu.*
- *Hemen paperetan ateratzen diren loreak jarri ditugu.*
- *Hemen lore txikiak daude, hemen ertainak eta hemen handiak.*

2. Taldea:



Ikasleen azalpena:

- *Lore batzuk alde batean eta beste batzuk beste alde batean jarri ditugu behean dagoen kamiseta ez estaltzeko.*
- *Kutxa erdian jarri dugu, objektu ezberdin bat dela erakusteko.*

3. Taldea:



Ikasleen azalpena:

- *Lehenengo orkillan lore batzuk jartzea pentsatu genuen, baina azkenean ezin izan genuen loretxo batzuk desagertu zirelako.*
- *Lorearen koadroa armairuko paretaren kontra jarri dugu hobeto ikusteko*

4. Taldea:



Ikasleen azalpena:

- *Tamaina eta kolore berdina duten loreak elkarrekin jarri ditugu.*
- *Handiagoak diren laranja koloreko loreak elkarrekin jarri ditugu.*
- *Eta praketan dauden loretxoak laranja kolorekoak direnez, laranja kolorea duten koloreekin batera jarri ditugu.*

**A TALDEA**

5. Taldea:



Ikasleen azalpena:

- *Hemen naturalak jarri ditugu, hemen plastikozkoak eta hemen ohialezkoak daude.*
- *Oinarrian nire kamiseta jarri dugu.*
- *Eta baratza bat izango balitz bezala, gure lorategia hilaretan jarri dugu.*

6. Taldea:



Ikasleen azalpena:

- *Lore artifizial eta naturalen azpian berokia jarri dugu, lore handiena delako.*
- *Lore hauek gurutzatu ditugu hauek hobeto ikusteko, inor ez pasatzeko eta loratégia ez zapaltzeko.*

7. Taldea:




Ikasleen azalpena:

- *Hauek elkarrekin jarri ditugu lore txikienak direlako.*
- *Alde honetan lore txikiak eta beste alde honetan lore handiak jarri ditugu.*
- *Espazio asko erabili gabe geneukanez gelako liburutegitik loreak agertzen diren liburu batzuk hartu ditugu eta zabladu ditugu loreak zeuden orrialdeetan.*
- *Lore hauek hertze honetan jarri ditugu oso gaizki usaintzen dutelako.*

8. Taldea:



Ikasleen azalpena:

- *Lehenengo pentsatu dugu Aliziaren zapia jartzea oso handia delako.*
- *Ondoren Joseba-ek ekarritako argazki batzuk hertzetan jartzea erabaki dugu.*
- *Gero estutxeak eta kamiseta jarri dugu tamaina ertainekoak direlako.*
- *Eta leku asko sobratzen zenez loreak (naturalak zein artifizialak) erdian jarri ditugu inongo ordenik gabe.*

**4. saioa:**

- **Helburua:**

Saio honen bitartez jakinarazi nahi zitzaien egoera baten aurrean soluzio anitzak egon daitezkeela. Gure ikuspuntua aldatu daitekeela eta gure pentsamoldeak ideia gehiago onartu ditzakeela, beraz jarduera honen bitartez konturarazi nahi zitzaien ez dagoela erantzun bakar eta soil bat galdera baten edo arazo baten aurrean.

- **Lantzen diren gaitasunak:**

LOMCE k ezarritako konpetentzia berrien arabera, hauek dira saio honetan zehar lantzen diren gaitasunak:

1. Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna.

7. Adierazpen eta kontzientzia kulturalaren gaitasuna.

- **Materialak:**

Saio honetarako behar izan nuen materiala: Ordenagailua, pantaila, aurkitutako ilusio optikoak, papera, arkatza eta borragoma izan ziren

- **Denbora:**

Saio hau jarduera bakar batez osatuta zegoenez, denbora guztia erabili genuen iluio optikoak aztertzeko.

- **Garapena:**

Laugarren saio hau, hirugarren eta bostagarren saioen arteko “lotura” jarduera bat izan zen. Izan ere, lorategiak diseinatu eta egitetik, hauetan beste zerbait ikusterako pausua handiegia iruditu zitzaidan eta bidean jarduera hau proposatzea erabaki nuen. Jarduera honetan sei ilusio optiko aurkeztu nizkien eta haiek paper batean apuntatu behar zuten ilusio optiko bakoitzaren aurrean ikusten zutena, ondoren gainontzeko ikaskideekin amankomunean jartzeko. Beraz, ilusio optikoak banan banan erakutsi nizkien eta denbora bat ematen nien haiek bakarrik, inorekin hitz egin gabe, ikusten zutena paperean idazteko.

Ikasleei azaldu nien “betaurreko magikoak”jantzi behar genituela irudi hauetan zerbait gehiago ikusi ahal izateko, eta guztiek haien behatzekin borobilak eginez begietara eraman zituzten, eta modu honetan irudiz irudi gauza anitzak ikusteko gai izango zirela esan nien. Hauek izan ziren erakutsi nizkien irudiak:

1.



2.



3.



4.



5.



6.



Jarraian, B taldeko zein A taldeko zenbait ikaslek ikusi ahal izan zutena irudi hauek aurkeztu nizkienean:[14]

B TALDEA:



1.- Neska bat zeruari begira.
2.- Txindol bat duela elurra barrutik.
3.- Iturri bat urarigabe.
4.- Pertsona bat, pertsona bat zaldianeta pertsona bat manta batekin.
5.- Pertsona bat tronpeta jotzen.
6.- Igel bat erlekaren ondoan ura edaten arri batean.



1-Neska bat ezkondu dela ilargia ikusten.
2- Unikornio bat Koba batean.
3- Loreontzi bat.
4- Pertsona bat zaldi batekin bi bibotean eta umo batekin tripan.
5- Tronpetista bat.
6- Igel bat remolino baten goian

[14] 4.Saio honetan ikasle guztiek ikusi zutena irakurri ahal izateko, eranskinetara joan.

A TALDEA:


1 Neskia bat itsasoari begira. Banana bat. Tarta bat.
2 Arrokak. Elurra. Entrada majiko bat. Neska bat.
3 Area erloju bat. Kapa bat. Mutil bat txapela batekin
4 Gizon bat. Suge baten burua. Zaldi bat.
5 Mutil bat. Biotz bat. Odei bat
6 Igel bat. Kabi bat. Leioa.
7


1 Neska bat atzera begira.
2 Esnea Colacaorekin.
3 2 aurpegi eta lore-ontzi bat.
4 Gizon bat, zaldi bat eta txori baten aurpegia.
5 Gizon bat saxofoia jotzen.
6 Igel bat.
7

Asko gustatu zitzaien hasiera batean zerbait zirudiena beste zerbaitetan bihurtzea edo beste zerbait gehiago ikusteko gaitasuna lortzea.

- *Ane*: *Ala! Bai, bai, ikusten dut!!!*
- *Unax: Ala, ze guay den!*
- *Endika: Nik, nik esan nahi dut ikusi dudana!*
- *Ekhi: Ba nik ez dut ikusten zuk esan duzuna…ni hemen beste gauza bat ikusten dut.*

Honen bitartez , erakutsi nahi izan nien egoera edo irudi baten aurrean aukera anitzak egon daitezkeela, erantzun posible asko existitu daitezkeela, eta guztiak baliozkoak direla nahiz eta lehenengo momentuan txorakeriak iruditu.

**5. saioa:**

- **Helburua:**

Beraiek diseinatutako lorategia beste zerbaitetan bihurtzea zen jarduera honen helburua. Horretarako, pentsamendu dibergentea behar zutenez, honen garapena nolakoa izan zen ikusi nahi nuen jarduera honen bitartez.

- **Lantzen diren gaitasunak:**

LOMCE k ezarritako konpetentzia berrien arabera, hauek dira saio honetan zehar lantzen diren gaitasunak:

1. Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna.
5. Gaitasun soziala eta herritartasuna.
6. Ekimen pertsonala eta ekintzaile izatearen gaitasuna.
7. Adierazpen eta kontzientzia kulturalaren gaitasuna.

- **Materialak:**

